



**LAURA PENAGOS**  
ANTZETZLEA

## Maitasun gutuna

**E**rironkaria, desagertuta. Saraitzue-ra, desagertuta. Nafarrera, oraindik ez. Bizkaiera, oraindik ez. Gipuzkera, oraindik ez. Lapurtera, oraindik ez; ezta batua ere.

– Batua! Baina hau euskara da, ala? Dut, det, dot, düt.

– Euskaraz bizi nahi dut. Hika, zuka, berorika.

Euskaraz bizi nahi dugu? Baiona, Tuter, Maule, Bilbo. Zer da normalizazioa? Hitz egiten dugun pertsonok euskara normalizatzen dugu?

– Ez da batere erraza ikastea.

– Euskara oso zaila da.

Posible da euskalduntzea? Gara, gera, gare, gira. Zer da euskara? Euskara da...

Zenbat atal? Zenbat erlaitz? Zenbat kategoria? Zenbat geruza? Euskararen geruzak. Zenbat urte? Zenbat mende? Zenbat zigor? Zenbat aurreiritzi? Zenbat beldur? Zenbat hitz geratu ziren sutan sukaldearen beroan esan gabe? Non hitz egin dezaket?

– Hemen, bai.

– Hemen, ez.

– Hemen, 'kaixo, zer moduz' soilik. Euskara da... Zuri, gorri, beltz. Zer esanahi du Euskal Herrian euskarak? Zer esanahi ematen diogu? Zer da niretzat? Zer da bizilagunentzat? Zer da lagunentzat? Euskarak etsaiak ditu? Zergatik ez da doan? Nor izango dira bere etsaiak?

– Titulua bai.

– Titulurik ez.

Euskara pribilegioa da? Noiz izango

da doan? Zazpi urte ikasten, zazpi! Zazpi erronka, zazpi ahalegin, zazpi etsipen, zazpi herrialde. Nahi duzue guk "kanpotarrek" euskaraz hitz egitea? Nor zarete zuek? Nor gara gu? Zer da nortasun bat?

– Ni naiz, zu zara, bera da.


Zertarako balio du? Euskara menperatuta dago? Nork menperatzen du? Nahi dute euskara desagertzea? Zein da bere gaurko egoera? Zer egiten ari gara? Zerbait egin behar dugu?

– Euskaldun berri.

– Euskaldun zahar.

Gorri min, gorri bizi, gorri samin, han-kagorri, goiz gorri, gori-gori. Gorrotatu. Maitatu. Euskara-gaztelania, amore eman; denda batean amore eman, osasun etxean amore eman, funtzionario batzuekin amore eman, kafetegi batean amore eman, bizilagun batzuekin amore eman, lagun batzuekin amore eman, epaitegietan amore eman, bilera batean amore eman, kalean amore eman, etxean amore eman, neure buruarekin amore eman, amore eman, amore eman, amore eman, amore eman, amore eman.

Sortzen, Herri urrats, Nafarroa oinez, ti-pi-ta-pa, ko-rri-ka, po-li-ki, po-li-ki, as-ti-ro, as-ti-ro, gel-di. Ezker, eskuin, erdi, hego ipar, mendebalde, ekialde. Non dira da-goeneko ahoskatzen ez diren hitzak? Non? Agian, mendi artean dabilta airean, belar, adar, hosto, isiltasun eta oroitzapen bihurturik. Sahats, haltz, haritz, hagin, ametz, hurriz, ize, ezki, lizar, zumar, gurbiz, gaztai-nondo, arte. ●



**EVA PEREZ-PONS**  
ANDRADE

## 'Drag king'

**D**rag king-aren bitartez baimendu diot neure buruari feminitateari hurbiltzea, zerikusirik ez duenak umetan ezagutu nuen feminitate derrigorrezko horrekin. Inguruko desesperaziorako eta nire auto onarpenaren bila, femenino kategorian sartzen diren gauza guztiak ukatu nituen eroso zitzaidan maskulinitateari nerabezaro beranduko ateak zabaltzeko.

Drag king-ari esker sendatu dut feminitatearekin nuen zauri hori, esploratu gabea dudana maskulinitatetik feminitatea nahi dudana neurrian gorpuzteko. Zeren eta, maskulino eta femenino kontzeptu zurrunak norma heterosexualaren logikan

baino ezin daitezke ulertu, eta biak izan daitezke neurri berean mugatzaile, tokatu zein aukeratu; batetik ihesi bestea inkontzionalki besarkatzea itogarri bilakatu daiteke luzera.

Zioen Leslie Feinberg-ek *Borrokalari transgeneroak* liburuan drag-a ukatu egin zaigun genero espresioa berreskuratzeko ekintza zuzena dela, tamalgarriki espazio gutxitan egin daitekeena. Bollera izateari esker ezagutu dut zer den maskulinitate zigortu bat, eta drag king-ari esker zer den feminitate disidente bat. Bien konbinazio honetan sentitzen naiz gustura, bakarra aukeratu beharrik gabe. ●